



ISPASTER

udala

ISPASTERKO UDALERRIAN AUZOLANA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

1. artikulua.-Ordenantzaren xedea

Ordenantza honek, Ispasterko udalerrian auzolanaren araubidea arautzea eta zehaztea du helburu.

Zentzu honetan, Ordenantza honen eraginetarako, Auzolanaren definizioa honako hau da: Ispasterko udalaren ekimenez, edota azken honek baimenduta, herritarrek borondatezko eran egindako prestazio, lan eta zerbitzuak, beti ere udalaren eskumenen barruan egongo direlarik.

Auzolana, herri honen landa eremuko komunitateen ohituretan oinarritzen da, eta gaurko legerian arautzen da, hain zuzen; auzolanaren oinarria juridikoa Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/ 1.985 Legearen 18.1.d) atalean arautzen da, herritarren eskubide eta betebeharrak. Izan ere, aipatu legearen 25.2.d) atalean xedatutakoaren arabera, azpiegituren mantenua udalaren eskumena da, eta betebehar horri aurre egiteko, eragindako herritarren laguntza eskatu ahal izango du udalak, prestazioaren araubide juridikoa arautuz gero.

Azkenik, 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, bere 44.1a) artikuluan udalerriko auzotarren betebeharrak arautzerakoan, legez edo udal-ordenantzen bidez aurreikusitako prestazio ekonomikoa eta pertsonalen bitartez, udal eskumenak gauzatzen laguntza ematea xedatzen da.

2. artikulua.-Lanak

Ordenantza honen ondorioetarako, udal eskumeneko eta interes publikoko edozein ekimen ahal izango da auzolanaren xedea, horien artean:

- Hondaturiko eremuak berreskuratzea
- Ondarea birgaitzea
- Landa eremuak mantentzea
- Gizarte izaerako prestazioak ematea
- etab.

Era guztietan, artikulua honetan aipatzen diren xedek adibide soilak dira, eta zerrenda ireki bat osatzen dute. Beraz udalaren esku geratuko da kasuz kasu,



ISPASTER

udala

Auzolaneko xedea finkatzea eta bere kasuan, zabaltzea, beti ere bere eskumeneko gaiak izan behar dutelarik.

3. artikulua.-Auzolanean parte hartuko duten herritarrek

Auzolanean parte har dezakete Ispasterko udalerrian erroldatutako edo bertan etxebizitza duten pertsona guztiek, 16 urtetik aurrera. Adin txikien kasuan, gurasoen baimena beharrezkoa izango da.

4. artikulua.- Auzolanaren antolaketa

Auzolanaren antolakuntza, dagokion prozesu parte hartzailearen emaitza izango da. Era honetan:

- Herritarrek aukera izango dute egokiak iruditzen zaizkien auzolanerako proposamenak luzatzeko udalak helburu honekin urtero antolatuko dituen foroetan. Foro hauek, herri gunean zein auzoetan zabalduko ditu udalak helburu honekin.
- Udalak, aipatu foroetan herritarrekin kontsultatu ondoren, urteko auzolanak aukeratzeko irizpideak onartuko ditu, eta horien arabera aukeratuko ditu sustatu behar diren urte bakoitzeko auzolan proiektuak.
- Auzolanerako eraturako taldeak gauzatuko du proiektu bakoitzari buruzko txostena, non agertuko diren proiektuaren xedea, epea, kosteak, eta gainontzeko informazioa.
- Behin proiektuak aukeratuz gero, eta dagokion txostena egin ondoren, Alkatetzaren Dekretuaren bidez onartuko da, eta deialdi publiko bat luzatuko du Ispasterko udalak, auzolanean parte hartzeko interesaturik dauden guztiek parte har dezaten ekimen bakoitzean.

5. artikulua.-Auzolanak nola egin.

Auzolanak egiterakoan, honako baldintza hauek errespetatuko dira:

- 5.1** Auzolanean parte hartzen duen herritar bakoitzak bere eskulana jarriko du, borondatezko eran.
- 5.2** Ispasterko udalak, bere aldetik, beharrezkoa den tresneria, makinaria, eta gainontzeko baliabide materialak jarriko ditu.
- 5.3** Auzolanean parte hartzen dutenek izan ditzaketen ezbeharrak estaltzeko, udalak dagokion aseguru hitzartuko du. Parte hartzaile bakoitzak aurretiaz



ISPASTER

udala

aseguru horren baldintzak onartu eta jakintzat hartu behar izango ditu dagokion agiria sinatuta.

5.4 Bestaldetik, udalak dagokion aseguru estaldura bermatuko du, auzolanean ari direnek hirugarrenei sor diezazkiekeen kalteengatik .

5.5 Udalak ez du inolako ardurarik izango herritarren erantzukizun ezagatik gerta daitezkeen ezbehar edo istripuengatik. Kasu hauetan, sorturiko kalteen erantzukizuna ardura gabez jokatu duten herritarrena izango da.

6. artikulua.- Auzolanaren amaiera

Lana edo zerbitzua amaitzerakoan, parte hartzaileek dagokion txostena egingo dute. Bertan, honako hauek zehaztuko dira: parte hartzaile kopurua, auzolanean egindako lana edo zerbitzua, izandako gertakariak (bere kasuan), helburuen betetze maila, eta orokorrean, interesa duen guztia.

7. artikulua.-Auzolanaren izaera.

Auzolana, herritarren borondatezko ekimenean oinarritzen denez, ez dakar inolaz ere udalaren eta herritarren arteko lan harremanik.